

OINARRI ESPEZIFIKOAK, URAREN EUSKAL AGENTZIako UR IKUSKARI, ANALISIGILE ETA PROIEKTU HIDRAULIKOEN NEURKETAKO TEKNIKARI LAGUNTZAILEEN LANPOSTUETAN LANGILE LAN-KONTRATUDUN FINKO IZATEKO HAUTAKETA-PROZESUA ARAUTZEN DUTENAK, ALDI BATERAKO ENPLEGUA EGONKORTZEKO SALBUESPENEZKO DEIALDIAREN BIDEZ (MEREZIMENDU-LEHIAKETA).

1.– Deialdiko plazak.

Lanpostu hauek eskaintzen dira txanda irekian, sarbide orokorreko modalitatean, honela banatuta

Lanpostua	Hizkuntza-eskakizuna	Derrigortasun-data	Beste betekizun batzuk	Plaza kopurua	Eranskina
UR IKUSKARIA	2	Bai	Gidabaimena	15	I.a
UR IKUSKARIA	2		Gidabaimena	3	I.a
ANALISIGILEA	2	Bai		2	II.a
PROIEKTU HIDRAULIKOEN NEURKETAKO TEKNIKARI LAGUNTZAILEA	2		Gidabaimena	2	III.a

2.- Eskabideak aurkeztea.

Oinarri hauek Agentziaren web-orrian (www.uragentzia.euskadi.eus) eta Qualis Consultores web-orrian (www.qualisconsultores.es) daude eskuragai.

2.1.- Eskabideak aurkezteko epea.

Eskabideak aurkezteko epea 2022ko abenduaren 28tik 2023ko urtarrilaren 25eko 14: 00ak artekoa izango da.

2.2.- Aurkezteko modua

Hautaketa-prozesuan parte hartzeko eskaerak Qualis Consultores web-orrian (www.qualisconsultores.es) soilik aurkeztuko dira.

3.– Parte hartzeko betekizunak.

3.1. – Plazak eskuratu nahi dituztenek oinarri orokorren 5 apartatuan ezarritako betekizun orokorrak bete behar dituzte.

3.2. – Deialdi honetako prozesu bakoitzean izena emateko tasa 15,70 euro da.

3.3. – Oinarri orokorretako 5.1.e) apartatuan xedatutakoaren arabera, oinarri hauen xede diren lanpostuetan sartzeko eskatzen diren titulazioak deialdi honen xede den lanpostu bakoitzari dagokion eranskinean zehazten dira. 4.- Lanpostuak esleitzeko betekizun espezifikoak.

4.1. – Deialdi honetako lanpostuetan, euskararen 2. hizkuntza-eskakizuna izatea betekizun izan daiteke lanpostua betetzeko. Euskara jakitea betekizuna da derrigortasun-data igarota daukaten lanpostuetan.

4.2. – Era berean, ur ikuskariaren eta proiektu hidraulikoen neurketako teknikari laguntzailearen lanpostu guztien berariazko betekizun da B gidabaimena edukitzea. Merezimenduak alegatzeko izapidean deklaratu beharko da.

5.– Hautaketa-prozesua.

5.1– Lehiaketa izango da hautatzeko sistema, eta, prozesuaren kalifikazioa zehazteko, baremo honen arabera emandako puntuak batuko dira:

a) Esperientzia orokorra.

Esperientzia orokortzat hartzen da edozein administrazio publikotan emandako zerbitzuak – barnean direla Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra eta haren organismo autonomoak– eta organismo autonomoetan edo zuzenbide pribatuko erakunde publikoetan emandakoak, lanpostu bakoitzari dagokion eranskinean zehaztutakoaren arabera, eta berdin dela nolakoak diren zerbitzuok, funtzionario-harremanetakoak edo lan-kontratuko harremanetakoak.

Esperientzia hori, gehienez ere, 15 punturekin balioetsiko da. Zenbaketa egiteko, eskatutako betekizunak betetzen dituzten azken 15 urteetako lan-aldiak batuko dira, eta, batu ondoren, hilabetetik beherako zatikiak kenduko dira. Horretarako, 30 eguneko multzoa hartuko da hilabetetzat.

b) Esperientzia espezifikoa.

Berariaz baloratuko dira, esperientzia orokorraren baloraziotik bereizita eta haren osagarri, Uraren Euskal Agentzian emandako zerbitzuak; lanpostu bakoitzari dagokion eranskinean zehaztuko dira zerbitzu horiek.

Esperientzia hori, gehienez ere, 70 punturekin balioetsiko da. Kasu guztietan, esperientzia-mota bakoitzerako eskatzen diren betekizunak betetzen dituzten azken 15 urteetako lan-aldiak batuko dira, eta, batu ondoren, hilabetetik beherako zatikiak kenduko dira. Horretarako, 30 eguneko multzoa hartuko da hilabetetzat.

c) Titulazioak: 3,75 puntu emango dira, eta, gehienez ere, 15 puntu, deialdirako sarbidea eman duen titulua ez den beste titulu ofizial bakoitzeko, betiere titulazioei buruzko betekizun espezifikoen ageri bada.

d) Euskara jakitea.

Euskara jakitea hizkuntza-eskakizunek derrigortasun-data igarota ez dutelako betekizun gisa eskatzen ez den lanpostuetan bakarrik baloratuko da, baremo honen arabera:

- 1. hizkuntza-eskakizuna: 6 puntu.
- 2., 3. edo 4. hizkuntza-eskakizuna: 9 puntu.

5.2– Lehenetsunaren klausula aplikatzea. Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 27.2 artikulua betetze aldera, artikulua horretan aurreikusitako berdinketa hausteko klausula aplikatuko da, emakumeak gutxiegi ordezkaturik baitaude lanpostu horiei dagokien kategorian, eta lehenetsuna emango zaie.

6.- Lan-poltsak.

Hauek osatuko dute oinarri hauen eranskinetan zehaztutako lanpostu bakoitzari dagokion lan-poltsa:

6.a. Prozesu osoan gutxienez 20 puntu lortzen dituzten langileek.

6.b. Esperientzia espezifikoaren atalean gutxienez 5 puntu lortzen dituzten langileek.

6.c. Uraren Euskal Agentziaren lanpostu bakoitzari dagozkion aurreko prozesuetako lan-poltsako langileek; horrenbestez, prozesu horretatik ateratzen den lan-poltsak aurrekoa ordeztuko du. Aurreko prozesuetako lan-poltsan dauden langileak lan-poltsa hau osatuko duten langileen atzetik geratuko dira, zero punturekin. Lan-poltsak 5 urteko iraupena izango du, argitaratzen denetik hasita.

I. eranskina: Ur ikuskaria

1.- Sartzeko tituluak

- Obra-planak gauzatzeko goi-mailako teknikaria
- Analisisien Laborategiko eta Kalitate Kontroleko goi-mailako teknikaria
- Kimika Industrialeko goi-mailako teknikaria
- Ingurumen-kimikako goi-mailako teknikaria
- Ingurumen-osasuneko goi-mailako teknikaria
- Basoa eta Natura Ingurunea Kudeatzeko goi-mailako teknikaria
- Ingurumen Hezkuntzako eta Kontroleko goi-mailako teknikaria
- Paisajismoko eta Landa Inguruneke goi-mailako teknikaria

2.- Lanpostuaren xede orokorra

Ingurune hidrikoko jarduerak, presioak eta intzidentziak ikuskatzea, zaintzea, egiaztatzea eta erregistratzea, indarrean dagoen araudiaren arabera, egoera ekologiko ona lortzeko.

3.- Eginkizun orokorrak.

- Baimenen administrazio-izapideak egitea.
- Mota guztietako informazioa eta dokumentazioa eskatzea eta lortzea.
- Fitxategiak eta erregistroak eguneratzea, izapidetzea eta mantentzea.
- Hainbat esparrutako jarduerak kudeatzea.
- Datuak, azterlanak, txostenak eta estatistikak egitea eta ematea, eta kontsultei erantzutea.
- Jabari Publikoaren arloko jarduerak ikuskatzea.
- Jabari Publikoaren arloko datuak erregistratzea.

Lanpostuan jardutean, maiz egin behar dira joan-etorriak ibilgailuarekin eta guardiak. Gainera, aldi-an-aldian, egoera zailean dauden pertsonekin izan behar da harremana, aire-zabalean lan egin behar da, eta prest egon ezusteko gertakarietarako (uholdeak, isurketak etab.). Babes-ekipo espezializatuak erabili behar dira.

4.- Esperientziaren baremazioa

a) Esperientzia orokorra.

Gehienez ere 15 puntu emango dira edozein administrazio publikotan uren ikuskapenen eremuan emandako zerbitzuengatik, oinarri espezifikoan 5.a) puntuan ezarritakoaren arabera, behar bezala egiaztatzen badira; baremo honi jarraituko zaio:

– 0,084 puntu emango dira, administrazio hidraulikoaren jardueren barruko ikuskapenaren arloko lanpostuetan lan egindako hilabete bakoitzeko.

b) Esperientzia espezifikoa.

Gehienez ere 70 puntu emango dira, esperientzia orokorraren baloraziotik bereizita eta haren osagarri, Uraren Euskal Agentzian emandako zerbitzuengatik, behar bezala egiaztatzen badira; baremo honi jarraituko zaio:

- 0,292 puntu emango dira, ur ikuskariaren lanpostuetan lan egindako hilabete bakoitzeko.

0,584 puntu emango dira, deialdi honen aurreko 5 urteetan ur ikuskariaren lanpostuetan lan egindako hilabete bakoitzeko.

II. eranskina: Analisisigilea

1.- Sartzeko tituluak

- Analisisien Laborategiko eta Kalitate Kontroleko goi-mailako teknikaria
- Kimika Industrialeko goi-mailako teknikaria
- Ingurumen-kimikako goi-mailako teknikaria
- Laborategi Klinikoko eta Biomedikoko goi-mailako teknikaria
- Ingurumen-osasuneko goi-mailako teknikaria

2.- Lanpostuaren xede orokorra

Laginak aztertzea eta laborategiko ekipoen mantentze-lanak egitea.

3.- Eginkizun orokorrak.

- Laborategian laginak aztertzea.
- Laborategiko ekipoen mantentze-lanak egitea.
- Laborategiko materiala kudeatzea.
- Laborategiko datuak erregistratzea.
- Laborategirako laginak hartzea.

4.- Esperientziaren baremazioa

a) Esperientzia orokorra.

Gehienez ere 15 puntu emango dira edozein administrazio publikotan hondakin-uren laginen laborategiko analisisien esparruan emandako zerbitzuengatik, oinarri espezifikoaren 5.a) puntuan ezarritakoaren arabera, behar bezala egiaztatzen badira; baremo honi jarraituko zaio:

- 0,084 puntu emango dira, hondakin-uren laginen laborategiko analisisien esparruko lanpostuetan lan egindako hilabete bakoitzeko.

a) Esperientzia espezifikoa.

Gehienez ere 70 puntu emango dira, esperientzia orokorraren baloraziotik bereizita eta haren osagarri, Uraren Euskal Agentzian emandako zerbitzuengatik, behar bezala egiaztatzen badira; baremo honi jarraituko zaio:

- 0,292 puntu emango dira, analisisgile lanpostuetan lan egindako hilabete bakoitzeko. 0,584 puntu emango dira, deialdi honen aurreko 5 urteetan analisisgile lanpostuetan lan egindako hilabete bakoitzeko.

III. eranskina: Proiektu hidraulikoen neurketako teknikari laguntzailea

1.- Sartzeko tituluak

- Obra Zibileko Proiektuetako goi-mailako teknikaria
- Eraikuntza Proiektuetako goi-mailako teknikaria
- Obra-planak gauzatzeko goi-mailako teknikaria
- Fabrikazio Mekanikoko Diseinuko goi-mailako teknikaria
- Metalezko Eraikuntzetako goi-mailako teknikaria

2.- Lanpostuaren xede orokorra

Obra hidraulikoen arloan neurketak egitea, eta planoak prestatzea eta egiaztatzea. Informazioa biltzea eta kudeatzea, arlo horretako txostenak eta espedienteak prestatzeko.

3.- Eginkizun orokorrak.

- Datu-baseak elikatzea
- Txostenak, espedienteak eta mota guztietako dokumentazioa prestatu, editatu eta osatzea.
- Mota guztietako informazioa eta dokumentazioa eskatzea eta lortzea.
- Eraikuntza, obra eta instalazioen arloko planoak egitea.
- Eraikuntza, obra eta instalazioen arloko informazioa eta dokumentazioa kudeatzea.
- Eraikuntza, obra eta instalazioen arloko neurketak egitea.
- Eraikuntza, obra eta instalazioetako planoak egiaztatzea.

4.- Esperientziaren baremazioa

a) Esperientzia orokorra.

Gehienez ere 15 puntu emango dira edozein administrazio publikotan proiektu hidraulikoen neurketen eremuan emandako zerbitzuengatik, oinarri espezifikoaren 5.a) puntuan ezarritakoaren arabera, behar bezala egiaztatzen badira; baremo honi jarraituko zaio:

– 0,084 puntu emango dira, proiektu hidraulikoen neurketen eremuko lanpostuetan lan egindako hilabete bakoitzeko.

a) Esperientzia espezifikoa.

Gehienez ere 70 puntu emango dira, esperientzia orokorraren baloraziotik bereizita eta haren osagarri, Uraren Euskal Agentzian emandako zerbitzuengatik, behar bezala egiaztatzen badira; baremo honi jarraituko zaio:

– 0,292 puntu emango dira, proiektu hidraulikoen neurketako teknikari laguntzailearen lanpostuetan lan egindako hilabete bakoitzeko. 0,584 puntu emango dira, deialdi honen aurreko 5 urteetan proiektu hidraulikoen neurketako teknikari laguntzailearen lanpostuetan lan egindako hilabete bakoitzeko.